

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2016ko URTARRILAREN 14an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2016ko urtarrilaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Felix Joaquin Asensio Robles
 Aritz Sarria Saraqueta

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/
Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:
- 2015eko abenduaren 10ean egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria
de fecha 10 de diciembre de 2015.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de
Alcaldía.
3. Larraulgo Urraitz etxean igerileku pribatu bat egiteko obra baimena eskaera,
I.R./ Solicitud de licencia de obra para la construcción de una piscina privada
en Urraitz etxea de Larraul, I.R.
4. Erniozaleak Kultur Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala
bada/Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Erniozaleak
Kultur Elkarte.
5. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketaren 2015eko kitapenaren onespina
eta 2016 urterako diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada/Aprobación
de la liquidación de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul y solicitud
de ayuda económica para el ejercicio 2016.
6. Larraulgo Ekomuseoaren 2015eko memoriaren onespina eta 2016 urterako
diru-laguntza eskaeraren onespina, hala bada/Aprobación de la memoria del
ejercicio 2015 de Larraulgo Ekomuseoa y solicitud de ayuda económica para
el ejercicio 2016.
7. Larraulgo Udala eta Tolomendi artean lankidetz hitzarmenaren
onespina, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta komunikazio



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

teknologiaren dinamizazio eta aholkularitza lanaren sustapenerako, hala bada./ Aprobación de convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y Tolomendi, para la gestión de trabajos de asesoramiento y dinamización e información de la comunicación de trabajos tecnológicos en los municipios de Tolosaldea.

8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

▣ 2015 urteko abenduaren 10eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

37/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 17koa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea, ebazten duena.

38/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 17koa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea, ebazten duena.

39/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23koa, Y.P. andreari, Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena eramateagatik jarritako bermearen zati bati itzultzea, ebazten duena.


40/2015 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 28koa, Aiztondo bailarako presoan eskubideen aldeko mugimenduak aurkezturiko manifestua onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO URRAITZ ETXEAN IGERILEKU PRIBATU BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.R.

Ikusirik I.R. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Urraitz etxean igerileku pribatu bat egiteko asmoa duela, horretarako obra baimena eskaera egiten du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2015eko abenduaren 28an, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Arkitektoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO URRAITZ ETXEAN IGERILEKU PRIVATU BAT EGITEKO ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA

I.R.I. andreak, Larraulgo Urraitz etxeko inguruetan igerileku pribatu bat egiteko baimena eskatzen du, lanen deskribapena azaltzen den aurrekontu eta kokapenaren argazki bat aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskaeran, igerilekua gaur egun bestea zuten lekuan jarri nahi dela esaten da. Aurrekontuan igerilekuaren ezaugarriak eta lanak deskribatzen dira. Igerilekuak 5m-ko luzera, 3m-ko zabalera eta 1,50m-ko sakonera izango du, ur bolumena 22,5m³-ko izanik. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 5.500€-koa da.

“Urraitz etxea”, lur ez hiritargarran kokatua dago, bereziki D20 produkzio zonaldean. Larraulgo araudiaren 10^a artikulua, D20 zonaldeen erabilera erregimenaren barruan bizitegi erabilerak aurretik dauden eraikinetan onartzen direla esaten du.

Larraulgo arau ordezkatzailen 9^o artikulua araberan, bizitegi erabilera batean etxebizitzak dituen kirol instalazio pribatuak, dagokigun igerilekua bazala, etxebizitzaren elementu osagarritzat jotzen dira, baina ezartzeko baimena espresuki eman behar izango da.

Udaran udal ur sarean gerta daitezkeen gora beherak kontuan harturik, igerilekuaren ur-hargunea 1/2”-koa izan beharko da (hargune honekin igerilekua betetzeko denbora luze pasako du, eta honela ezingo da bat batean ur depositua hustu).

Igerileku pribatua, bizitegi erabileraren elementu osagarri bat bezala hartuaz eta aurrekoa betetzen bada, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.


**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.R. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urraitz etxean igerileku pribatu bat egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Erniozale Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Zortzi Herrien arteko ibilaldia antolatu dutela, maiatzaren 15erako. Ibilaldia aurten Asteasun hasi eta Asteasun bukatzen da. Horretarako ibilbideak txukundu eta margotzea beharrezkoa egin da.

Goian aipaturikoa gauzatu ahal izateko, Larraulgo Udalari 333,00.-eurotako diru-laguntza eskaera egiten diote Erniozale Kultur Elkarteak, 2014 urtean onestutako hitzarmenaren babesean.

Ikusirik, Larraulgo Udalak oraindik onartu gabe duela 2016 urterako Udal Aurrekontu Orokorra.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- Larraulgo Udalak konpromisoa hartuko du, 2016 urterako Udal Aurrekontu orokorrean, dagokion partida onesteko, aipaturiko diru-laguntza gauzatu dadin.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETAREN 2015EKO KITAPENAREN ONESPENA ETA 2016 URTERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA HALA BADA

Ikusirik, 2015eko otsailaren 11an eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2015 urteko aurrekontuetan aurreikusita zegoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.

Kontutan hartuta diru-laguntza eman ondoren baldintza bat jarri zela, hau da, 2015eko kontuen kitapena aurkeztu beharko zela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, A.A.J. jaunak Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2015eko kontuen kitapena aurkeztu duela Larraulgo Udalean.

Ikusirik A.A.J. jaunak, 2016 ko martxoaren 20an egingo den Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako diru-laguntza eskaera eta Larraulgo Udalaren laguntza eskatzen duela, Asteasuko Udaletik, bailak eta podiuma ekartzeko eta DYA zerbitzua egun horretan lasterketan egoteko beharrezkoak diren izapideak egiten laguntzeko eskaera.

Ikusirik, Larraulgo Udalak oraindik onartu gabe duela 2016 urterako Udal aurrekontu orokorra.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: A.A.J. jaunak aurkezturiko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2015eko kontuen kitapena onestea.

BIGARRENGOA: Larraulgo Udalak konpromisoa hartuko du, 2016 urterako Udal Aurrekontu orokorrean, dagokion partida onesteko, aipaturiko diru-laguntza gauzatu dadin.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO EKOMUSEOAREN 2015EKO MEMORIAREN ONESPENA ETA 2016 URTERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA


Batzarkideak, aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, gaiari buruz informazio gehiago izan arte.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALA ETA TOLOMENDI ARTEAN LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOALKULARITZA LANAREN SUSTAPENERAKO, HALA BADA

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udal erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela Tolomendi Landa Garapen Elkarteak eskaintzen duen Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

dinamizazio zerbitzua partekatua izateko, horretarako dagokion Lankidetzaz-hitzarmena prestatu delarik.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU


LEHENGOA.- Larraulgo Udala eta Tolomendi Landa garapen elkartearen artean 2016 urterako Lankidetzaz-hitzarmena onestea, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza lanaren sustapenerako.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakari andrea ahalmenu aipaturiko Lankidetzaz-Hitzarmena sina dezan.

ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDANKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

LIDOINSA	641,30
CORREOS	15,35
EUGENIO LOIDI	167,40
EBA ERKIZIA	612,15
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	412,59
BULEGOAK	144,96
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.075,95
TOLOMENDI	150,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	21,66
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.248,13
MANPEL	104,47
MUJKA JATETXEA	429,77
FERRETERIA BARBE	405,29
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	113,97
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.011,58
SETALDE	22,87
AITZOL EUSKALTEGIA	64,96
AITZOL EUSKALTEGIA	73,08
CORREOS	1,53
EBA ERKIZIA	751,28
GAZTEZULO	22,00
IBERDROLA	28,04
IBERDROLA	295,23
IBERDROLA	76,23
IBERDROLA	220,20



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	164,58
REPSOL	83,21
REPSOL	174,30
MOVISTAR	132,16
MOVISTAR	52,12
MOVISTAR	18,19

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.734,55** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. LARRAULGO UDALA ETA ASTEASUKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, BI HERRIEK PARTEKATZEN DITUZTEN HERRI BIDEEN KONPONKETA LANAK KUDEATU ETA FINANTZATZEKO, HALA BADA

Ikusirik Asteasuko Udalak eta Larraulgo Udalak, bi herriek partekatzen dituzten herri bideen konponketa lanak kudeatu eta finantzatzeko arau batzuk finkatu behar dituztela.

Ikusirik Lankidetzaz-Hitzarmen bat prestatu dela, aipaturiko bi herriek partekatzen dituzten herri bideen konponketa lanak kudeatu eta finantzatzeko.


Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Larraulgo Udalaren eta Asteasuko Udalaren arteko Lankidetzaz-Hitzarmena onestu, non bi herriek partekatzen dituzten herri bideen konponketa lanak kudeatu eta finantzatzeko arauak finkatzen diren.

BIGARRENGOA.- Alkate-Lehendakari andrea ahalmenu aipaturiko Lankidetzaz-Hitzarmena sina dezan.

9.2. KATILUTXULO ELKARTEAK AURKEZTURIKO ITURGINAREN ALBARANAREN AZTERKETA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Katilutxulo Elkarteko Junta berriak, Larraulgo Udalari, aurreko juntak eskatutako lan baten ondorioz, iturginaren albarana igorri diola, bertan azaltzen diren gasturen kargu egiteko.

Ikusirik, Katilutxulo elkartean azken urte hauetan iturginak hainbat lan egin dituela, Katilutxulo elkarteak bere gain hartu dituelarik bertan sortzen diren gastuak. Hau horrela izanik, Larraulgo Udala ez da gastu hauen kargu egiten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Ez onartzea, Katilutxulo Elkarteak Larraulgo Udalari igorri dion Iturginaren albarana, gastu hauen kargu Udala egin dezan, goian azaltzen diren arrazoiak direla medio.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Katilutxulo Elkarteko Juntari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA